

**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prensa oharra
2025-02-18

Gaur elkarretaratzeak burutuko dira hezkuntza publikoko greba zikloaren bigarren txandari hasiera emateko

LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek EAeko hiri zein hamaika herritan arratsaldez elkarretaratzeak deitu dituzte, **Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu! Hemen eta orain erabakita!** lemapean.

Greba zikloaren bigarren txandan sartuko dira Hezkuntza Saileko irakasle, sukaldari eta garbitzaileak. **Bihar eta etzi sukaldari eta garbitzaileek egingo dute greba eta otsailaren 26 eta 27an irakasleek.**

Urtarrileko greben jarraipena eta babes zabalaren ondoren, **Hezkuntza Sailak balizko proposamenik helarazi gabe jarraitzen du** eta greba dinamikarekin aurrera jotzeko bidea besterik ez du uzten.

LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek urtarrileko hezkuntza publikoan deitutako **grebek jarraipen eta babes oso zabala izan dute beraz, oso positiboki baloratzen dituzte.** Jaurlaritza, gehiegizko zerbitzu minimoekin (eta familia zein lankideei zuzendutako gutunekin) grebak baldintzatzen saiatu den arren, langileek mezu argia bidali diote Hezkuntza Sailari.

Hauek dira grebetako aldarrikapen nagusiak: plantillak gazte-berritzeko neurrietan aurrerapausoak ezarri, eros-ahalmena berreskuratu, enplegua egonkortu eta bermatu, lan zamak arindu, lizentzia eta baimenak hobetu eta osasun, euskara eta hezkidetzaren arloan hobekuntzak ezarri. Irakaslegoan, besteak beste, irakastordua jaitsieta burokrasia gutxitu eta sukalde eta garbiketaren funtzioak zehaztu, kategoriak egokitu eta pribatizazioari mugak jarri.

Bikain ari gara langileak, indartsu gaude! Greba dinamikarekin jarraitu eta kaleak bete behar dira Hezkuntza Sailak aldarrikapenei erantzun egokia eman arte, lan hitzarmen berriak lortu arte! Argi dago langileen mobilizazioarekin batera lan baldintzak hobetzeko negoziazio erreala lortuko dela.

Ondorengo hiri zein herrietan, arratsaldez antolatuko diren elkarretaratzeak:


- **Gipuzkoan:** Donostia, Hernani, Arrasate, Beasain, Urretxu eta Orereta.
- **Bizkaian:** Bilbo, Durango, Gernika, Igorre eta Balmaseda.
- **Araban:** Gasteiz eta Laudio.

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

Nota de prensa

18-02-2025

Hoy se llevarán a cabo concentraciones para dar inicio a la segunda ronda del ciclo de huelgas en la educación pública

Los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO han convocado concentraciones por la tarde en las capitales y varios pueblos de la CAV, bajo el lema: **Mejora de las condiciones laborales en la educación pública, decididas aquí y ahora!**

Comienzan la segunda ronda del ciclo de huelgas, el profesorado y el personal de cocinera y limpieza del Departamento de Educación. **Mañana y pasado harán huelga el personal de cocina y limpieza y los días 26 y 27 de febrero el profesorado.**

Tras el seguimiento y amplio apoyo a las huelgas de enero, **el Departamento de Educación sigue sin trasladar ninguna propuesta suficiente** y no deja otra alternativa que continuar con la dinámica de huelgas.

Las huelgas convocadas por LAB, STEILAS, ELA y CCOO en la enseñanza pública de enero han tenido un **seguimiento y apoyo muy amplio, por lo que las valoran muy positivamente.** A pesar de que el Gobierno Vasco ha intentado condicionar las huelgas con servicios mínimos excesivos (y cartas dirigidas a familiares y compañeros y compañeras), la plantilla ha enviado un mensaje claro al Departamento de Educación.

Las principales reivindicaciones de las huelgas son: la implantación de avances en las medidas de renovación de las plantillas, la recuperación de la capacidad adquisitiva, garantizar y estabilizar de empleo, la mejora de licencias y permisos y la implantación de mejoras en el ámbito de la salud laboral, el euskera y la coeducación. En el profesorado, entre otras cosas, bajar el número de horas lectivas y disminuir la burocracia y en cocina y limpieza, definir las funciones, adecuar las categorías y poner límites a la privatización.

Los y las trabajadoras están haciendo genial, ¡están fuertes! ¡Hay que seguir con la dinámica de huelga y llenar las calles hasta que el Departamento de Educación dé una respuesta adecuada a las reivindicaciones, hasta conseguir nuevos convenios laborales! Queda claro que junto con la movilización de las personas trabajadoras se conseguirá una negociación real para mejorar las condiciones laborales.

Han convocado concentraciones por la tarde en las siguientes localidades :

- **En Gipuzkoa:** Donostia, Hernani, Arrasate, Beasain, Urretxu y Orereta
- **En Bizkaia:** Bilbao, Durango, Gernika, Igorre y Balmaseda.
- **En Araba:** Vitoria y Llodio.

LAB


steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA


irakaskuntza